

### Badira alternatibak

### Hay alternativas

Borondate politikoa besterik ez da behar osasuna babesteko sistema alternatibo bat garatzeko; pertsonen bizitza eta osasuna kokatu behar da erdigunean. Horretarako, Gasteizko eta Iruñeko gobernuak honako erabakiak har ditzatela eskatzen diegu:

- 1.- Enplegu osasuntsu, kalitatezko eta segurua sortzea.
- 2.- Baliabide gehiago gaixotasun profesionalak ikertzeko; arreta berezia eman behar zaie emakumeek jasaten dituzten gaitz eta patologiei.
- 3.- Osasuna politika guztietan babestu. Politika publikoek osasunean eta osasunaren berdintasunean duten eraginaren ebaluazioa sustatzea, osasun sektorean zein beste sektoreetan.
- 4.- Lan istripuetan eta gaixotasun profesionaletan gertatzen den azpierreregistroari jazartzeko neurriak. Erregistro propioa sortzea.
- 5.- Lan osasuneko sistema publikoa, sistema publiko osoaren atal gisa.
- 6.- Gizarte-Segurantzako sistema propioa sortzea.
- 7.- Araudia urratzen duten enpresen gaineko ikuskatze, kontrol eta zigor ugariagoa.
- 8.- Egungo egoeran, euskal herri-erakundeek mutualitateen jardura zaindu eta kontrolatzea.
- 9.- Prebentzio sistema publikoa, zeinaren lehentasuna pertsonen osasuna izango den.
- 10.- Enpresetan prebentzio integral eta integratua, baliabide propioekin garatua.

*Solo falta voluntad política para desarrollar un sistema alternativo de protección de la salud, que ponga en el centro la vida y la salud de las personas. Para ello, exigimos a los Gobiernos de Gasteiz e Iruña las siguientes medidas:*

- 1.- *La creación de empleo saludable, de calidad y seguro.*
- 2.- *Más recursos para la investigación de las enfermedades profesionales, prestando especial atención a las enfermedades y patologías que sufren las mujeres.*
- 3.- *Protección de la salud en todas las políticas. Promover la evaluación del impacto en la salud y en la equidad en salud de las políticas públicas, tanto del sector sanitario como del no sanitario.*
- 4.- *Medidas contra el subregistro de los accidentes de trabajo y enfermedades profesionales. Creación de un registro propio.*
- 5.- *Sistema de salud laboral integrado en el sistema público.*
- 6.- *Creación de un sistema propio de Seguridad Social.*
- 7.- *Mayor inspección, control y sanción contra las empresas incumplidoras.*
- 8.- *En la actual situación, vigilancia y control de la actividad de las mutuas por las instituciones públicas vascas.*
- 9.- *Un sistema público de prevención que tenga como prioridad la salud de las personas.*
- 10.- *Prevención integral e integrada en las empresas, desarrollada con recursos propios.*

# PREKARIETATEA: Lan munduaren gaixotasuna

ENFERMA Y MATA



#### EZKER-ESKUIN

- 1:** Lan ezbeharren eta gaixotasunen oinarrian dagoen egiturazko arazoa.  
**2:** Lan osasun politikak aldatzeko sindikatuok bultzatu behar dugun borroka tresna.

#### GOITIK-BEHERA

- 1:** Decisiones gubernamentales que han dejado el gasto público en salud laboral reducido a la mínima expresión.  
**2:** Las enfermedades profesionales no aparecen en las estadísticas oficiales aunque causan más muertes que los accidentes de trabajo. Son...  
**3:** Patronalaren interesak defendatzen dituzten erakundeak. Lan gaixotasunak ezkatzen dituzte, gure osasunaren kaltetan negozioa eginez.

La salud no es un pasatiempo

Eta noski, **MOBILIZAZIOA!**

Aurtengo apirilaren 28an, lan segurtasun eta osasunaren egunez, salatzen jarraitu behar dugu langile-klasearen osasuna areago okertu dela. Hego Euskal Herrian iaz 53 langile hil ziren lan istripuz. Istripu guztien kopurua %9 gehitu da 2015 urtearekiko. Lantokietan lan osasuna hondatzen ari dela diogunean istripu hilgarriak nabarmendu ohi dira. Haatik, hauek iceberg-aren tontorra besterik ez dira, lanak osasuna galtzea eragin dezakeen kasuen artean.

### Gaixotasun profesionalak, ahaztuenak

Gure fokoa zabaldu egin nahi dugu, eta gaixotasun profesionalen errealitatea salatu beharrekoa da. Hauek izan ohi dira ahaztuenak. Horretarako aitzakia izaten da ondorioak ez direla berehalakoan nabaritzen, hots, gaitzak urteak eta hamarkadak beranduago hasten direla agertzen, esposizio urteen ostean. Latentzia aldi luzea duten gaixotasun batzuk -kantzerra, neumokoniosia, silikosis- hilgarriak izaten dira, baina langilea ia erretiratzear dagoenean, edo are jubilatu ondoren.

### Etekinak, gure osasunaren lepotik

Prekaritatea da lan merkatuaren gaixotasuna: soldata kaskarrak, ordaindu gabeko lanorduak, lan erritmo biziak, azpikontratazioa, malgutasun gero eta handiagoa... Horiek guztiek kalte handia eragiten diote langileen osasunari, eta horiei esker patronalaren irabaziak hazten doaz. Gure gaixotasun eta heriotzak ia debalde ateratzen zaizkie.

Halaber, mutualitate patronalek gure osasuna negozio bihurtu dute. Diru publikoa kudeatzen dutenean asmo bakarra dute, beren kide diren enpresen etekina, ez langile-klasearen osasuna.

Hego Euskal Herriko gobernuek ez daukate interes politikorik lan ikuskaritza, ISPLN edota Osalan behar besteko bitartekoz hornitzeko. Gainera, zigorren aplikazioa barregarria izaten da.

### Emakumeak, ikusezinak

Emakumeek areago pariatzen dute prekaritate laboral zein soziala, eta etxeko enplegatuen kasuan, prebentzio araudiaren aplikaziotik salbuetsita daude. Ekitatezko, diskriminaziorik gabeko lan osasun kontzeptu batek generoa aintzat hartu beharko luke. Horrek esan nahi du segurtasun eta higieneko ohiko arriskuetatik harago joan behar dela, arrisku psikosozialetatik edota osasunean genero ikuspegiaren helburu nagusia osasun erreproduktiboa izatetik.

*Este 28 de abril, día internacional de la seguridad y salud laboral, tenemos que seguir denunciando que la salud de la clase trabajadora ha empeorado. En Hego Euskal Herria, en 2016 han fallecido 53 trabajadoras y trabajadoras en accidente de trabajo. Los accidentes totales han aumentado un 9% respecto a 2015. Cuando hablamos de la pérdida de la salud laboral en los centros de trabajo, por su gravedad y por ser lo más visible, ponemos el foco principalmente en las muertes producidas por los accidentes de trabajo. Sin embargo, estos solo constituyen la punta del iceberg de todas las pérdidas de salud relacionadas con el trabajo.*

### Enfermedades profesionales, las grandes olvidadas

*Queremos ampliar nuestro foco de atención y denunciar la realidad de las enfermedades profesionales. Son las grandes olvidadas. Una de las excusas para ello es que sus consecuencias no son instantáneas, es decir, las dolencias o enfermedades empiezan a aparecer años o incluso décadas más tarde, tras años de exposición. La mortalidad ligada a enfermedades con un largo periodo de latencia,*

*como el cáncer, la neumoconiosis, la silicosis, se manifiesta cuando la persona trabajadora está punto de finalizar su vida laboral, incluso tras la jubilación.*

### Los beneficios, a costa de nuestra salud

*La precariedad es la enfermedad del mercado laboral: los bajos salarios, el tiempo laboral no retribuido, los elevados ritmos de trabajo, la subcontratación, la creciente flexibilidad... afectan de forma muy negativa a la salud de los y las trabajadoras, mientras la patronal sigue aumendo su margen económico. Nuestras enfermedades y muertes les salen casi gratis.*

*Las mutuas patronales, asimismo, han convertido nuestra salud en su negocio. Gestionan dinero público pensando en el beneficio de sus empresas asociadas y no en la salud de la clase trabajadora.*

*Por parte de los Gobiernos de Hego Euskal Herria no existe interés político de dotar de medios necesarios a la inspección de trabajo, ISPLN u Osalan. Además, la aplicación de sanciones es irrisoria.*

### Las mujeres, invisibilizadas

*Las mujeres sufren en mayor medida la precariedad laboral y social, y, en el caso de las empleadas de hogar, están incluso excluidas de la aplicación de la normativa de prevención. Un concepto de salud laboral equitativo y no discriminatorio debería valorar y tener en cuenta la variable de género en el ámbito de la salud laboral. Incorporar esta perspectiva significa ir más allá de los riesgos clásicos de seguridad e higiene, de los riesgos psicosociales o de la salud reproductiva.*

